

HERNANIK kronika

2004 urtea
Otsailak 17
Asteartea
Alea: 1021
www.kronika.net



Aurrera elkartea askotan hartu izan du parte Inauterietako konpartsan.

Ostiralean hasiko dira 25garren Inauteriak Hernanin eta aurten Aurrera elkarrean izango da omendua

■ Inauteri jaiet 25 urte betetzen dituztela eta *Hernaniko Inauteriak* oroituz liburua osatu dute hainbat herriarrek eta Udalak ■ Igandeko konpartsetan, aurten berri bat aterako da eta guztira 500 pertsonek hartuko dute parte.

OSTIRALEAN hasiko dira Hernanin Inauteriak Udaleko balkoikizuzenaren botatza eta aurten Aurrera elkartea jasoko du omenaldia. Aurrera elkartea ezintasun psikologoren bat duten pertsonekin aritzen da lanean, eta Inauterietan urteetan parte hartu izateagatik eta herrian egiten duten lana errekonozitzeko asmoarekin aukeratu ditu Jai Batzordeak.

Hernaniko Inauteriak oroituz Hernaniko Inauteri jaiet 25 urte betetzen dituzte eta hori dela eta *Hernaniko Inauteriak* oroituz liburua osatu dute hainbat herriarrek eta Udalekoak. Liburuan Inauterien inguruko artikuluak, argazki zahar eta berriagoak eta Inauterien historia jasotzen dira, besteak beste. Liburuaren aurkezpena Biterin

egingo da ostegun honetan, hilaren 19an, arratsaldeko 20:00etan.

Unai, konpartsan berria
Aurten ere jende ugari aterako da igandeko konpartsetan eta gainera bat berria aterako da: *Unai* konpartsak, hain zuen ere. Egundik 12:00etan aterako dira Urbieta kaletik, Ttarla, Langile, Inmaculada, Elizatxo eta Unai eta Aurrerako konpartsak, eta guztira 500 pertsona ibiliko dira mozarrotuta kale giroa animatzen. Azeri dantzak ere ez da faltako aurtenetako Inauterietan, eta larunbata eta astelehenen goizean izango da ikusteko aukera.

Aurtengo Inauterietan haurrek aukera zabala dute. Larubatean, xexenak, kale animazioa eta mozarro festa izango dituzte. □

Igandean, berbena eta asteburuan, gazteentzat Azeri

dantza, pailazoak eta antzerkia izango dira. □

Otsailak 20, ostiralak

15:30etan: Inauterien hasiera. Aurrera taldea omenduko da eta segidan ikastetxeetako haurrek kale buelta egingo dute Urumea Ikastolako txarangaz lagunduta. Gudarien plazan.

16:30etan: Erraldoi eta buruhaundiak.

17:00etan: Enetz triki taldearen emanaldia. Plaza Berrian.

22:00etan: Elkarte arteko pelota txapelketa, Kiroldegian.

Otsailak 21, larunbata

10:00etan: Azeri Dantza

11:00etan: Betikoak txarangarekin kale buelta.

11:30etan: Xexenak haurrentzako. Urumea Ikastolan.

12:30etan: Erraldoi eta buruhaundiak.

16:30etan: Circus Mircus kale animazioa Detraka taldearekin eskutik. Plaza Berrian.

18:30etan: Mozarro festa. Gaz-

teek prestatuko emanaldiak. Tilosetan.

00:00etan: Betikoak txarangarekin kale buelta.

Otsailak 22, igandea

11:30etan: Betikoak txaranga.

12:00etan: Konpartsen irteera.

17:30etan: Haurrentzako berbera, Plaza Berrian.

19:30etan: Musika Eskolako trikitilari eta dultzaneroekin kale buelta.

Otsailak 23, astelehena

09:00etan: Diana

10:00etan: Azeri Dantza.

12:00etan: Potxin eta Patxin pailazoak, Biteri Plazan.

16:00etan: Erraldoi eta buruhaundiak.

17:00etan: Haurrentzako Kla-kaeta emanaldia, Hortzmuga taldearekin.

18:30etan: Sardinaren entierroa.

Patxi Zabaleta eta Mikel Basabe gaur Biterin

ARALAR ezker independiente Ezker independentista izenburuarekin hitzaldia emango dute gaur Aralarko koordinatziale Patxi Zabaletak eta Mikel Basabe alderdiko bozeramaileak. Hitzaldia arratsaldeko 19:30etan da Biteri kultura etxean. □

Pedro Kanoren epaiketa salatzeko manifestazioa

PEDRO Mari Kano Pitu hernaniarra epaitzen ari dira Madril eta epaiketak salatzeko manifestazioa dago bihar. Gudarien plazatik aterako da manifestazioa, 20:00etan. Bestalde, gaur eta bihar furgoneta bat aterako da Hernanitik epaiketa joateko eta Garin tabernan eman behar da izena. □

Urumea Ikastolan hitzaldia gaur

URUMEA Ikastolan hitzaldia dago gaur *Gazteak gaur egun* izenburuarekin. Arratsaldeko 19:00etan da Elkan kaleko edifizioan. □

Hernani Institutuak antolatuta hitzaldia bihar

AUTOESTIMA eta adoleszentzia gaiaren bueltan hitzaldia emango du Begoña Etxeandia psikologoak Hernanin. Institutuko gurasoei zuzendua da, baina, nahi duenarentzat zabalik dago. Biher, 18:30etan Biterin. □

Gobernu Batzarra gaur

GAUR bilduko da Gobernu Batzarra Udaletxean, arratsaldeko 17:30etan eta 6 puntu dituzte eztabaidatzeko. Zenbait Udal eraikin garbitzeko zerbitzu zabaltzea eta herriko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuaren kontratu aldardeariak dira aztertuko diren puntuatko bi.

Bestalde, Elizatxo auzoko 37, 38, 43, 44, 47 eta 48 zenbakietako zerbitzu sareak berriro eta berriz urbanizatzeko lanak adjudikatzea da beste puntuatko bat. □

ALTZUETA
TOLARE - SAGARDOTEGIA

www.altzuetasagardotegia.com
Altzueta Sagardotegia S.L.
Osinaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani
Tel./Fax: 943 55 15 02
e-mail: altzuetasagardotegia@altzuetasagardotegia.com

Asteartetik
Larunbatera
irekita




JTXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobil: 653 74 10 97
20120 Hernani

g taberna-jatetxea
astelehenetik
igandera
10:00etatik
✓ Eguneko menua
✓ Menu berezia
Goizeko 10:00etatik aurrera
Gosariak, plater konbinatuak,
razioak, kaxuelak, bokatak, pintxoak...
Izpizua kalea 15 - HERNANI
943 55 00 02




Museko sarituak, kaldereroetako omenduak eta elkarteko arduradunak Elur-Txori aurrean.

Elur-Txorin urteurrenenko bazkaria eta museko sari banaketa izan zitzuten igandean

■ Binaka, Karrera eta Mitxelena gelditu ziren txapeldun, eta Gorka banakakoan.

URTEURRENEKO bazkaria egin zuten joan den igandean Elur-Txori elkartetan eta bazzal ondoan mus txapelketako sariak banatu zitzuten. Binaka eta banakako txapelketak jokatu dira eta binakakoan, Karrera eta Mitxelena gelditu dira txapeldun; bigarren, Arozamena-Lapazaran; hirugarren, Martinez-Zubillaga; eta laugarren Garcia-Guardado. Buruz buru txapeldun Gorka gelditu da; bigarren, Ormazabal; hirugarren Txatxon; eta laugarren Burugain.

Kaldereroi eskerrak
Bestalde, Kaldereroak antolatzen urtetan egindako lana eskertzeko plaka bana eman zien elkartek Karlos Landa eta Gregorio Mitxelenari. □



Lujanbio, Mendiluze eta Irazurekin bertso bazkaria otsailaren 28an

ELUR Txori elkartek bertso bazkaria antolatu du otsailaren 28rako, larunbata. Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu ariko dira kantuan. Txartelak salgai daude Elur-Txorin bertan eta Oindi eta Rioja tabernetan, 25 eurotan.



Mozorroak ibili ziren etxe eta kalean barrena Aranon, Inauterietan.
Igandean ospatu zituzten inauteri jaiak aranon eta mozorroak puska biltzen ibili ziren goiz osoan. Arratsaldean kalean egin zuten dantza eta antzerkia: mozorroak dantzaren joaten dira eta aiton eta amona jende artean korrika eta arrastaka ere bai. Antzerki bukaeran amona haurdun gelditzen da eta umea ekartzen du. Ondorenean herri afaria eta dantza izan ziren. □

HITZ BITAN

✓ HAUTESKUNDEAK

Mahaietako ordezkariak izendatzea gaur. Plenoak gaur goizean izendatuko ditu martxoak 14ko hauteskundeetako mahaiak. Plenoa, goizeko 09:15etan da.

✓ BERTSOLARITZA

Hernaniko bertsolariak sagardotegietan. Gaur Estitxu Eizagirre, Xabier Legarreta eta Gorka Tolosa arituko dira Lizeaga Sagardotegian. Ostegunean, berriz, bi saio izango dira. Oialume-Zarren, Ibon Miner, Iñaki Zelaia eta Jexux Mari Irazu; eta Rezolan, Unai Agirre, Aritz Zerain eta Jon Iraola. Ostiralean, berriz, Larregainen izango dira bertsolariak.

✓ BOLEIBOLA

Hernanik ezin Fortunaren kontra, igandean. Igandean kirolegian jokatu zuen Hernaniko nesken taldeak Fortunaren kontra eta ezin izan zuten irabazi. Fortunak 0-3 irabazi zuen. Jokoak: 15-25, 6-25, 20-25.

Ester Lopez Kopako txapeldun. Ester Lopez boleibol jokalari hernaniarrak, CV Marichal Tenerife taldearekin jokatzen du eta asteburuan Kopako txapeldun gelditu dira, Caja Avilar 3-0 irabazita. Kanarietako taldeak bigarren kopa du jarraian eta baita jokalari hernaniarrak ere. Horrez gain, Tenerife sailkatua dago Europako Txapelketako azken faserako eta Superkopako txapeldun gelditu da aurten. Ester Lopez joko maila oso onean dago eta Spainiako selekzioko jokalari fijoak da libero postuan.

✓ TXANTXANGORRI ELKARTEA

Mus txapelketako partidak gaur. Txantxangorri elkartean mus txapelketako 2garren kanporaketako partidak jokatuko dira gaur. Balantxa-Balantxak Iñaki-Joserraren kontra jokatuko dute eta Albert-Pedrok Joxe-Mikelen kontra.

✓ ASTIGARRAGA

Bideo emanaldia kultur etxearen. Isiltasunaren aurkako ahots guztiak leloarekin bideo emanaldiak botatzen dituzte asteartero Astigarragako kultur etxearen. Gaur Lurraren Odola pelikula botako dute. Kolonbiako Uwa herriaren historia kontzauen du, nola borroka egiten duten lurraren eta kulturaren alde, petrolio enpresa eta besteren kontra. Gaur 20:00etan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

+ FARMAZIAK

- Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbia 7 ☎ 943 552941
- Gauetan: Iturrealde Usurbil. Polígono 13, 9 ☎ 943 363395

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42) Power Mac 7200 ordenagailua salgai. Osagaiak: 15" monitorea, EPSON impresora, ZIPa. Interesatuek deitu: 680 26 86 69

ESKERTZA

Cristino Albistur Bikandia

Otsailaren 10ean hil zen 78 urte zituela



Haren emaztea, semea eta gainerako ahaideek oso eskertzen dizuete samin agurra bidali zentenenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere.

Hernan 2004ko otsailaren 17an



Matrikula zabalik dago etapa guztietan (2-16)

Otsailak 16-27

Non: Laubidetan

Ordutegia
9:00-13:00
14:30-17:30

Ikastetxeak bisitatzeako aukera eskaintzen da

Laubidetako z/g.- 20120 Hernani ☎ 943 555 423 - Faxa 943 331 936
Informazio gehiago gure web gunean: www.langile.com